



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

**LITERATURA
DRAMATIKOA**

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

**LITERATURA
DRAMÁTICA**

Azterketa honek HIRU atal ditu. Lehenengo eta hirugarren atalean bi galderetako bati erantzun behar diozu.

Jarraibideetan adierazi baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

Azterketa egiteko, 90 minutu dituzu. Azterketako bi aukerek atal berberak dituzte (hiruna atal).

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea.

1. ATALA. Obraren iruzkina eta analisisia (4 puntu).

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisisia:

a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.

- Antzerki-generoa (0,5 puntu).
- Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu).
- Pertsonaien ezaugarriak (0,5 puntu).
- Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritutakoa (0,5 puntu).

b) Estiloa eta formaren azterketa.

- Antzerki-testuaren formaren berezitasunak (1 puntu).
- Antzerkiko testu idatziaren ezaugarri zehatzak (akotazioak eta dialogoak) (1 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian honakoak balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, hiztegiaren aberastasuna, hizkuntza-adierazpenaren egokitasuna, ortografiaren zuzentasuna zuzentasuna eta gaiaren oinarriei buruzko ezagutzak.

2. ATALA. Antzerki-praktikak jorratuz testu-dramatiko bat sortzea eta argudiatzea (3 puntu).

Lehenik eta behin, argudiaketa- eta planifikazio-testu bat idatzi behar da. Testuak gutxienez 150 hitz izan behar ditu, eta gehienez 200; eta alderdi hauek landu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak garatu. (1 puntu)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

**LITERATURA
DRAMATIKOA**

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

**LITERATURA
DRAMÁTICA**

- Proposatutako ariketarekiko egokitasuna. (1 puntu)

Ondoren, testu dramatiko bat idatzi behar da, argudiaketan zehazturiko ideiak aintzat hartzen dituen. Gutxienez orrialde-erdi idatzi, eta gehienez orrialde bat. (1 puntu)

3. ATALA. Antzerki-artearen inguruko kontzeptuei buruzko galderak (3 puntu)

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Gutxienez 100 hitz behar dira kontzeptu bakoitzeko, eta gehienez 200 hitz. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 1,5 puntu emango zaio bakoitzari.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

**LITERATURA
DRAMATIKOA**

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

**LITERATURA
DRAMÁTICA**

1. ATALA – Iruzkina eta analisisia. Aukera bietako bat hautatu. (4 puntu)

- a) Yasmina Reza. *Artea*.
- b) Henrik Ibsen. *Panpinen etxea*

2. ATALA. Antzerki-praktikak jorratuz testu-dramatiko labur bat sortzea eta argudiatzea. (3 puntu)

Dejabu Panpin Laborategia. *Gure bide galduak*.

3. ATALA. Antzerki-artearen inguruko kontzeptu hauetatik BI aukeratu, eta eduki nagusiak idatzizko testu batean garatu. (3 puntu)

- a) antzerki-pertsonaia.
- b) antzezpen-errealizazioa.
- c) antzerki-harrera.
- d) antzerki-testua (definizioa eta elementuak).



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

**LITERATURA
DRAMATIKOA**

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

**LITERATURA
DRAMÁTICA**

1. ATALA. Iruzkina eta azterketa. Aukera bietako bat hautatu.

a) Artea. Yasmina Reza. 5.3 ekitaldia: SERGIO + IBON + MARCOS

Isilune laburra.

MARCOS: Etzak hain estu hartu, motel.

IBON: Hain estu ez hartzeko! Nork jarri nau egoera honetan?! Nire arima ez duk zuena bezain delikatua. Nor naiz ni? Pisu arin bat, irmotasunik eta iritzirik ez duen alproja bat. Horixe nauk: alproja bat!

MARCOS: Hago lasai...

IBON: Ezidak esan lasai egoteko. Ez diat batere arrazoirik lasai egoteko. Erotu nahi banauk, esaidak lasai egoteko! «Hago lasai» duk bere onetik atera den bati esan dakioken gauzarik txarrena! Ez naiz zuek bezalakoa, ez dut botererik nahi, ez dut erreferentzia izan nahi, ez dut bizitza propiorik nahi, nahikoa daukat zuen laguna izatearekin, Ibon alproja, alproja maitagarria eta on-puska. Baina alproja!

Isilunea.

SERGIO: Patetismoa alde batera utziko bagenu...

IBON: Bukatu diat. Badaukak mokadutxoren bat? Ziplo ez erortzeko.

SERGIO: Oliba batzuk.

IBON: Ekar itzak.

SERGIOk eskura daukan oliba-katilu bat pasatzen dio.

SERGIO: (MARCOSi) Nahi?

MARCOSek baietz.

IBONEk katilua pasatzen dio.

Olibak jaten dituzte.

IBON: ... Ez daukak platertxorik, hezurak botatzeko?

SERGIO: Bota leihotik.

Hezurak publikoari botatzen dizkiote.

IBON: (Olibak jaten dituen bitartean.) Hain urrutira iristea ere... Halako kataklismoa panel zuri batengatik...



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

LITERATURA
DRAMATIKOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

LITERATURA
DRAMÁTICA

SERGIO: Ez duk zuria.

IBON: Kaka zuri bat!... (*Barre-algarek harrapaturik*)... Horixe duk-eta: kaka zuri bat!... Onartzak, gizona!... Erosketa horrek ez zeukak batere zentzurik! Kaka hutsa duk, eta kito!

MARCOSEK *barre egiten du* IBONen *neurrigabekeriak hartaraturik*.

SERGIO *egongelatik irteten da*.

Eta berehala itzultzen da Antrios-a¹ eskuan duela. Lehengo toki berean jartzen du.

SERGIO: (*IBONi*) Hor al daukak errotuladore famatu hori?...

IBON: Ez, galdu diat berriro.

MARCOS: Honek balio du?

SERGIO: Ekartzak.

IBON: Nirea bezalakoa.

MARCOS: A ze kasualitatea.

IBONEK *errotuladorea ematen dio* SERGIORI.

SERGIOK *errotuladorea hartu, estalkia kendu, puntari begiratu eta estalkia jartzen dio berriro*.

MARCOSi *begiratu eta errotuladorea pasatzen dio*.

MARCOSEK *hartu egiten du*.

Etenaldi laburra.

SERGIO: (MARCOSi) Emaiok egurra. (*Isilunea*)

MARCOS *koadro aldera hurbiltzen da*.

SERGIORi *begiratzen dio*.

Estalkia kentzen dio errotuladoreari.

IBON: Ez haiz gauza izango!...

MARCOS SERGIORI *begira...*

SERGIO: Hasi.

IBON: Pitzatuta zaudete biok!

MARCOS *makurtu egiten da koadroaren altuera berean egoteko*.

¹ Koadroa edo artelana: tela zuri bat da.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

**LITERATURA
DRAMATIKOA**

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

**LITERATURA
DRAMÁTICA**

IBONen begirada izutua gainean duela, MARCOSek zeharkako marra batzuk marrazten ditu.

SERGIO zirkinik egin gabe.

Ondoren, malda horren gainean, MARCOSek eskiatzaile txanodun txiki bat marrazten du.

Amaitzean, zutitu eta obrari begiratzen dio.

SERGIOk marmolezkoa balitz bezala jarraitzen du.

IBON zur eta lur.

Isilunea.

SERGIO: Goseak akabatzen nago! Goazen afaltzera.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

**LITERATURA
DRAMATIKOA**

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

**LITERATURA
DRAMÁTICA**

b) Andere etxea. Henrik Ibsen. III. EKITALDIA

(...)

HELMER: Ulerkaitza zaude, Nora, ulerkaitza eta esker txarrekoa. Ez al zera zorioneko izan nire ondoan?

NORA: Ez, egundaino ez, hala uste izan ba nuan ere.

HELMER: Ezetz?... ez zarela izan zorioneko?

NORA: Ez, alai nenbilen besterik ezer ez. Atsegina zinen niretzat... baina gure etxea ez zen jolastoki bat besterik. Panpina handi bat izan naiz zure etxean, aitarenean panpina txiki bat nintzen bezalaxe. Horixe izan da gure ezkontza, Torwaldo.

HELMER: Arrazoi pittin bat baduzula ez dizut ukatuko, baina harri koskorra dagoen tokian harkaitza ikusten duzu. Baina tira, gaurtik dena erabat aldatuko gara... Jolaserako garaiak joan ziren, orain hezteko denbora da.

NORA: Hezteko zein? ni ala haurrak?

HELMER: Haurrak eta zu, bihotzeko Nora.

NORA: Ez zara gauza, Torwaldo, ni hezteko eta nirekin behar zenukeen bezalako emazte egiteko.

HELMER: Eta zeinek eta zuk esaten al duzu hori?

NORA: Eta nik berriz... zer dakit hurrei behar bezala erakusteko?

HELMER: Nora!

NORA: Ez al duzu zerorrek esan arestian? Ez al zenion, ba, lan hori niri ematen ezin zintezkeela ausartu?

HELMER: Irakinaldi batean esan dut eta orain horri heldu behar al diozu?

NORA: Alajaina! Garbi asko esan duzu. Nik ez dudala horretarako behar hainbat zentzun. Beste lan bat badaukat bai aurretik egiteko: neure burua hezi eta osatu eta horixe egin behar dut. Zuk ez diezadakezu hori egin; neronek bakarrik egin behar dut. Horregatik uzten zaitut eta banoa.

HELMER: (*Saltoan altxatzen da*). Zer... ze esan duzu?

NORA: Bakar-bakarrik bizi beharrean nago neure burua ezagutzeko; ezin nezake beraz zure ondoan segi.

HELMER: Nora! Nora!!

NORA: Oraintxe bertan alde egin nahi det. Gaur gauerako ostatua ez zait faltako Kristinaren etxean.

HELMER: Txoratu egin al zara? Ez daukazu alde egiteko eskubiderik. Debekatu egiten dizut.

NORA: Zuk ez diezadakezu ezer debekatu hemendik aurrera. Badaramazkit nire gauza guztiak. Zurerik ez dut ezer ere nahi ez orain eta ez sekula.

HELMER: Baina ze txorakeria da hau?

NORA: Bihar abiatuko naiz nire jaioterri aldera... han hobeto biziko naiz.

HELMER: Bai itsua zaudela, munduko berri ezer ez dakizun gaixo hori...!

NORA: Orain saiatuko naiz ikasten, bai Torwaldo.

HELMER: Zure etxea, zure senarra, zure seme-alabak utzi eta alde egin... Ze esango du jendeak?

NORA: Nahi duena esan dezala. Ezin egongo naiz huskeria horri begira. Niretzat behar-beharrezkoa da alde egitea.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

**LITERATURA
DRAMATIKOA**

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

**LITERATURA
DRAMÁTICA**

HELMER: A, amorragarria da! Zure lehenengo eginkizunak ez dituzu bete nahi hortaz.

NORA: Zeintzuk dira, zure ustetan nire lehenengo eginkizun horiek?.

HELMER: Esan beharrik ere ba al dago. Zure senarrarentzat eta seme-alabekiko dituzunak!

NORA: Baditut horiek baino aurreragokoak.

HELMER: Ez. Zeintzuk izan daitezke, ba?

NORA: Nire buruarekiko ditudan eginkizunak.

HELMER: Beste ezer baino lehen, emazte eta ama zara.

NORA: Ez dut, ba, uste. Beste ezer baino lehen, zuk adina eskubidetako pertsona bat naiz edo izaten saiatu behar dut, behintzat. Badakit bai, gizonik gehienak arrazoi emango dizutela Torwaldo, eta zure iritzi horiek liburuetan barreiatuak daudela, baina orain ez ninteke begira egon gizonak esan dutenari edo liburuek jartzen dutenari. Nik nire iritzia atera behar dut.

HELMER: Hara! Ez al dakizu etxe barruan ze leku dagokizun? Ez al daukazu huts egingo ez duen gidari bat horretarako? Ez al duzu erlijiorik?

NORA: Oraintxe ez dakit ziur-ziur erlijioa zer den!

HELMER: Ez dakizula zer den?

NORA: Artzai Hansenek esandako hauxe bakarrik dakit. Erlijioa, hau, hori eta gainerako guztia da. Hori ere beste gauza asko bezalaxe, bakarrik eta aske nagoenean aztertu eta ikusiko det. Ea hark zioena egia den edo niretzat, behintzat, egia izan daiteken

HELMER: O! Beste hainbeste entzun behar genionik ere emakume gazte bati!!! Erlijioak ezin bazaitu gidatu, utzidazu, behintzat, zure barru hori miatzen. Gaizki egina edo ondo egina bereziko dituzu ezta? Edo ezta hori ere? Esadazu.

NORA: Horra Torwaldo, ze nahi duzu? Ez dakit, ba, zer erantzun. Ez dakit. Ez dut ezer garbi ikusten. Bai, gauza bat ikusten dut garbi: zure eta nire iritziak arras desberdinak direla, legeak ez direla nik uste bezalakoak, eta lege horiek zuzenak direnik ez zaidala buruan sartzen. Nolatan ez dezake emakume batek hilzorian dagoen bere aita zaharrari buruhauste eta kardabazio berri bat ez emateko eskubiderik izan, edo bere senarraren bizia salbatzeko. Hori ezin daiteke!!!

HELMER: Ume bat bezala ari zara hizketan. Ez duzu ezer konprenitzen bizi zaren gizarteari buruz.

NORA: Ez, ezta ezertxo ere. Baina ezagutu nahi dut inguruko gizarte hori eta jakin ere bai ea zeinek duen arrazoi; gizarteak, ala nik.

HELMER: Zu gaixo zaude Nora, sukarra daukazu eta burutik nahastu ez zarenik ere ez nuke esango.

NORA: Bai zera, sekula baino hotzago daukat burua eta segurantzia gehiago nigan.

HELMER: Eta segurantzia hori edukita, senarra eta haurrak utzita alde egiten al diguzu?

NORA: Bai.

HELMER: Horrek gauza bat bakarra esan nahi du hortaz.

NORA: Zer?

HELMER: Ez nauzula maite.

NORA: Halaxe da; horregatik da guztia.

(...)



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

**LITERATURA
DRAMATIKOA**

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

**LITERATURA
DRAMÁTICA**

2. ATALA. Antzerki-praktikak jorratuz testu-dramatiko labur bat sortzea eta argudiatzea. (3 puntu)

Dejabu Panpin Laborategiaren *Gure bide galduak* liburuko "Dramaturgia eta plater hautsiak" kapituluan honako hau irakur daiteke:

Objektuen erabilera

Antzezlanean erabiltzen diren objektuak batetik eszenetako ekintzak lagundu eta giro zein espazioak sortzeko erabiltzen dira: aterkiak euripean, paperak fabrikako makinak gisa, liburuak liburutegiko apalak marrazteko, jantziak pertsonaiak eraikitzeke, irratia albisteak entzuteke eta abar. Baina beste alde batetik objektu horiek badute funtzio poetiko bat ere. Hala, osabaren kutxa zaharra hilobi bihurtzen da momentu batez, Manuelen arrokek galiziarraren heriotza irudikatzen dute, aterkiak guztiak elkarrekin biraka jartzen direnean Kattalinen barne mundua adierazten da edo Anderren oheko maindireak bikotearen banaketa adierazten du.

Hori horrela, aukeratu objektu bat gutxienez, eman esanahi edo erabilera berezi bat, eta idatzi, lehenik, argudiaketa- eta planifikazio-testu bat, gutxienez 150 hitz eta gehienez 200 dituen, eta, jarraian, sortu testu dramatiko labur bat, gutxienez orrialde-erdikoa eta gehienez orrialde batekoa.